

Gizonduz

**EUSKAL BERDINTASUNERAKO LEGEAREN
ERREFORMAREN ALDAKETA NAGUSIAK,
BEREZIKI GIZONEI ZUZENDUTAKO NEURRIEI
DAGOKIENEZ**



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

AURREKARIAK

- ▶ **Legegintzaldiko konpromisoa.**
- ▶ **Abiapuntua:** 4/2005 Legea, aitzindaria, integrala, ebaluatua eta saritua.

IZAPIDEAK

- ▶ **Aurretiazko parte hartzeko prozesua** (2017ko azaroa - 2018ko maiatza)
- ▶ **Jaurlaritzan izapidetzea** (2019ko martxoa - 2020ko urtarrila)
- ▶ **Lehen aldiz Legebiltzarrera bidali** (2020ko otsaila)
- ▶ **Bigarren aldiz Legebiltzarrera bidali** (2020ko abendua)
- ▶ **Legebiltzarraren onespena** (2022ko martxoak 3)
- ▶ **EHAAn argitaratzea** (2022ko martxoak 17)

ERRONKA NAGUSIAK IDENTIFIKATZEKO ITURRIAK


- ▶ **Istanbulgo Hitzarmena (2014)**
- ▶ **NBEren 2030 Agenda (2015)**
- ▶ **Estatu-Ituna (2017)**
- ▶ **Estatuko lege berriak (berdintasuna, adingabeak, biktimak)**
- ▶ **4/2005 Legearen ebaluazioak**
- ▶ **NBEren programako lan-prozesua**
- ▶ **Mugimendu feministaren aldarrikapenak**

ERREFORMAREN SINTESIA

- ▶ **Berdintasan-politikak sektore publiko osora hedatzea.**
- ▶ **Sektore pribatuak funts publikoak eskuratu ahal izateko baldintzatzat ezartzea** hark berdintasunaren alorreko legeria betetzea, kontratu eta dirulaguntzetako berdintasan-klausulen bidez.
- ▶ **Oraindik ere badauden desberdintasunak ezabatzea**, kultura, hezkuntza, enplegua, osasuna, gizarte-zerbitzuak eta bestelako esparru giltzarrietan indargarriak ezarriz.
- ▶ **Zaintza-lanak erdigunera ekartzea**, zainketak eskaintzeko modu unibertsal eta publikoaren, enplegu-egituren egokitzapenaren eta gizonen erantzunkidetasunaren bidez.
- ▶ **Indarkeria mota guztien aurkako erantzuna indartzea**: adingabeak, zaurgarritasun-egoeran dauden emakumeak, erreparazioa, nahitaezko prestakuntza...

HERRIALDE-ITUN HANDI BATEN ALDE

- ▶ **Legeak beharrezkoak dira, baina ez dira nahikoa** desberdintasunaren eta generoan oinarritutako indarkeriaren arazo unibertsal, egiturazko eta dimentsio anitza gainditzeko.
- ▶ Horregatik, beharrezkoa da legearekin batera **berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako herrialde-itun handi bat** hitzartzea; eta horretan ari gara lanean zeresana duten eragileekin, Nazio Batuen **Generation Equality** ekimenaren barruan.



**EUSKAL BERDINTASUNERAKO
LEGEAREN ERREFORMAREN ALDAKETA:**

**BEREZIKI GIZONEI ZUZENDUTAKO
NEURRIAK**

LEGEAREN PRINTZIPIO OROKORRAK

- ▶ **Ez dira sexuan oinarritutako diskriminaziotzat joko justifikazio objektiboa eta zentzuzkoa duten neurriak, emakumeei eta gizonei tratamendu ezberdina ematea badakarte ere.** Neurri horien artean helburu hauek dituztenak sartu behar dira: emakumeentzako ekintza positiboa, sexuei arrazoi biologikoengatik babes berezia eman beharra, **eta gizonek etxeko lanetan, pertsonen zaintzan eta tratu- eta aukera-berdintasunaren aldeko lanean parte har dezaten sustatzea.** (3.1.c art.)

LEGEAREN PRINTZPIO OROKORRAK

- ▶ **Gizonen inplikazioa:** euskal botere publikoek, modu transbertsalean eta ekintza espezifikoen bidez, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka gizonen kontzientziazioa, erantzukizuna, parte-hartzea eta inplikazioa sustatu behar dituzte, bai eta berdintasunezkoak ez diren maskulinitateak auzitan jartzea eta **desagerraraztea ere**. Hori guztia, emakumeak ahalduntzeko lana indartzeko eta osatzeko, eta pertsona guztien giza garapenerako eta justizia soziala eta berdintasuna lortzeko bide gisa. (3.13 art.)

UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZA

- ▶ **Hezkuntza administrazioak sustatuko du** (...) ikasleak gaitzea eta egun dauden oztopoak kentzea, besteak beste ikasleei ikasketak hautatzeko ematen zaizkien orientazio-programak hobetuz, aukera akademikoak generoan oinarritutako baldintzapenik gabe hauta ditzaten, lanbide-heziketaren sektore estrategiko jakin batzuetan eta beste eremu batzuetan emakumeek duten presentzia txikiagia zuzentzeko moduan, hala nola industrian, zientzian eta teknologian, bai eta **gizonek beste eremu batzuetan dutena ere, hala nola humanitateetan, hezkuntzan eta osasunean.** (32.1.d. art.)

UNIBERTSITAEZ KANPOKO IRAKASKUNTZA

- ▶ **Hezkuntza administrazioak** zainduko du ordutegiek eta egutegiak ahalik eta gehien errazten dutela ikasleen gurasoen lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egitea. Gainera, **aitek seme-alaben zaintzan duten erantzukidetasuna** sustatuko du, bai eta ikastetxeetako hezkuntza- eta elkarte-bizitzan duten parte-hartzea ere. (32.4 art.)

ETXEKO LAN ETA ZAINZA-LAN EZ-ORDAINDUAK

- ▶ **Euskal administrazio publikoek gizonen erantzukidetasuna sustatuko dute etxeko lanen eta zaintza-lanen arloan, eta bultzatu egingo dute haien artean zaintzaren etika eta jarduna orokortzea**, norberaren eta besteen garapen eta ongizaterako bide gisa, eta desberdinkeriak, indarkeria matxistak eta pertsonentzat eta ingurunearentzat kaltegarri diren arrisku-jokabideak prebenitzeko bide gisa. **Halaber**, euskal botere publikoek neurri egokiak hartuko dituzte **gizonen erantzukidetasuna sustatzeko neurriak sar daitezzen bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa sustatzeko neurrietan** eta jarduketetan. (38.c. art.)

BIZITZA PERTSONALAREN, FAMILIAREN ETA LANAREN KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEA

- ▶ **Euskal botere publikoek guraso bientzat baimen berdin eta besterenezinak bermatuko dizkiete beren langileei, seme-alaben jaiotza-, adopzio- edo harrera-kasuetan, eta, beren eskumen-eremuan, sektore pribatuan baimen horiek aplikatzea sustatuko dute. (52.3. art.)**

OSASUNA

- ▶ **Euskal administrazio publikoek sexu- eta ugalketa-eskubideak baliatzearen ondoriozko beharrei erantzun behar diete, prebentzio- eta asistentzia-neurrien bidez. Orobat hartuko da aintzat gizonen egitekoa aurreikusitako neurrien diseinuan, garapenean eta ebaluazioan, eta abian jarriko dira berariaz haiei zuzendutako jarduketak, emakumeen eta gizonen berdintasunari laguntzekoak. (48.3 art.)**

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA

- ▶ **Euskal administrazio publikoek genero-desberdinkeriarri aurre egiteko programak eta jarduerak egin behar dituzte, sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak barne, bereziki emakumeei zuzenduta, haien autonomia, kontzientziazio feminista eta ahalduntzea indartzeko, eta **gizonei**, berriz, **maskulinitate matxista eta bortitzak deseraikitze**ko, **berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako eragile aktibo bihur daitez**en. (56.2 art.)**

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA

- ▶ **Euskal administrazio publikoek bermatu behar dute badaudela programak, bai adingabeentzat, bai helduentzat, emakumeen kontrako indarkeria baliatzen dutenei pertsonen arteko harremanetan indarkeriarik gabe nola jokatu erakutsiko dietenak, berriz ere indarkeriara ez jotzeko eta indarkeriazko jokabide-eskemak aldatzeko; eta bermatu behar dute badaudela berreziketa-programak delitu horien egileek ez dezaten berriz halakorik egin (56.4 art.)**